

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresan, kostuak txikiak izan arren, haiek minimizatzen saiatuko gara. Lehenik eta behin, kanpoko enpresari, gure produktu estandarra eginaraziko diogu, eta produktu hauek lote txikietan erosiko ditugu, 100eko loteetan adibidez. Kostu finkoak 3 dimentsiotako inprimagailua erostea izango da, gure produktu estandarra pertsonalizatzeko erabiliko duguna; bestalde, web orria mantendu beharko dugu.

Gure enpresa kostu aldakorrak izango dira nagusi, produktu estandarra erosiko dugulako. Horregatik, gure gastu bakarra produktuaren pertsonalizazioa da, eta hau egiteko erabili beharko dugu materiala. Produktuen gastua, salmenta bolumenaren arabera da.